



**M17 GREBA
OROKORRA**


DENA
GELDITU,
ALDAKETA
ERAGITEKO

1.500€_{ko} LGS
HEMEN ERABAKI

M17 GREBA OROKORRA

DENA **GELDITU,**
ALDAKETA **ERAGITEKO**

1.500€^{ko} LGS HEMEN ERABAKI



AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Geroz eta pobreago	7
1.1. Aberastasunaren banaketa bidegabea, pobrezia eta prekaritatea	7
1.2. Planetaren mugen aurrean, klase borroka	8
1.3. Dirua gerrarako, ez gizarte ongizaterako	9
1.4. Ezkerrak, alternatibarik ez	10
1.5. Jendarte antolatuaren ekimenei mespretxua demokrazia defizitaren adierazle.....	11
1.6. Eskuin muturraren gorakada	12
2. Erantzuteko premia	13
2.1. Ari gara	13
2.2. Eta orain: "1.500€ko LGS hemen erabaki"	21
2.3. Autogobernuaren inguruko eztabaidaren erdian.....	26
3. Ezinbesteko gizarte aktibazioa, polarizazio eta interpelazio politikoa: Greba Orokorra.....	30
3.1. Zapalkuntza eta inposizio egoeretatik askatzeko konfrontazioa	30
3.2. Langile klasearen ahalduztze, polarizazio eta konfrontazio tresna nagusia.....	32
4. Egin dezagun posible: aktibatu, gelditu, eraldatu	39

SARRERA

Martxoaren 17an Greba Orokorra deitu dugu Euskal Herrian, aldarrikapen argi eta zehatz batekin: 1.500 euroko gutxieneko soldata “hemen”, Euskal Herrian, erabakitzea. Testuinguru oso gogor eta arriskutsu batean egiten dugun deialdia da eta horrek berak bihurtzen du ezinbesteko Greba Orokorra eta gizarte aktibazio zabala.

Hamarkadetan, aberastasunaren sorkuntza asko hazi da, baina bana-keta gero eta bidegabeagoa da. Garatutako politika ekonomikoek, lan legedian eta babes sozialerako tresnetan inposatutako murrizketa eta erreformek, enpresak eta errenta handiek inoizko irabazirik handienak izatera eraman dituzte. Langile klasearentzat, ordea, enplegua izateak ez du bermatzen duintasunez bizitzeko aukera. Egungo lan eta enpleguaren egituraketak prekaritatea normalizatu du, soldata txikiak hedatu dira, eta pobrezia egoerak eguneroko errealitate bihurtu dira milaka eta milaka langilerentzat.

Egoera hori are larriagoa da, gainera, ongizate sistema osoa pixkana-ka desagiten ari direlako. Osasuna, hezkuntza, etxebizitza, zaintza edo gizarte babesa bezalako funtsezko eremuetan murrizketak eta azpifinantzaketa ezarri digute, betiere argudio berarekin: “ez dago dirurik”. Diskurtso horrek, ordea, bestelako interesak ezkututzen ditu. Izan ere, ez da neurririk hartzen zerga bidez aberatsenak gehiago ordaintzeko eta diru sarrera publikoak handitzeko. Eta, aldi berean, sekula baino baliabide gehiago bideratu nahi dira estrategia eta industria militararrera, nahiz eta horrek zorpetze maila historikoak sortu, hurrengo belaunaldientzako inbertsio sozialak hipotekatuz. Hau da: badago dirua gerrarako, baina ez bizitzarako funtsezkoak diren osasuna, hezkuntza, etxebizitza, zaintzak, elikadura edo energia herritar guztientzat bermatzeko.

Krisi sozial eta ekonomiko horri krisi ekologikoa gehitzen zaio. Eredutalariak ezarritako ekoizpen eta kontsumo ereduak planetaren mugak gainditu dituzte. Ez da jasangarria. Lehengai eta energia iturriak agortzen ari dira, eta horrek transnazional handien eta potentzia politiko nagusien arteko lehia areagotu du. Energia eta baliabideen kontrolerako borroka geopolitikoa, neokolonialismoa, militarizazioa eta gerrak ez dira salbuespenak; egungo sistemaren ondorio logikoak dira. Eta berriro ere, krisi honen kosturik handienak langile klaseak ordaintzen ditu.

Testuinguru horretan, gainera, ezker politikoa ez da ari behar diren irtenbideak eta alternatibak proposatzen eta lantzen. Ezkerreko alderdi askok, diskurtso ustez aurrerakoi baten atzean, politika neoliberalak normalizatu dituzte, elite ekonomikoekin adostasunak bilatu eta apustu erabat instituzionala egin dute, mugimendu sozialetatik urrunduz. Ekonomia ongi doala esateak herritarrak gero eta larriago bizi direnean edo lorpen handiak eta akordio historikoak lortu direla, horrek jendearen bizi arruntan apenas eraginik ez duenean, haserrea, frustrazioa eta etsipena sortzen ditu herritar askoren artean, eta alternatibarik ez dagoenaren ideia zabaltzen laguntzen du.

Are gehiago, Euskal Herrian langile klasearen eta herritar xumeen bizi baldintzak hobetzeko jendarte antolatuak egindako ekimenak baztertu egin dira. EAJK, PSE-EEk eta PSNk egoera horren aurrean alternatibak eraiki eta ongizatea bermatzeko proposamenak eztabaidara onartu ere ez dituzte egin. Horren adibide argia da Pentsionisten Herri Ekimen Legegileak EAEn edo sindikatuok LGS Euskal Herrian erabakitzeko egin dugun proposamenak jaso duen mespretxua. Horrelako erabaki eta jokatibide autoritario eta antidemokratikoek instituzioak herritarrengandik urruntzen dituzte eta jendearen premiak asetzeko ekimenei atea ixten diete.

Burujabeago egiten gaituzten eta bizi baldintzak hobetzen dituzten bi eskari hauek horrela mespretxatzea EAJ, PSE-EE eta EH Bildu EAerako estatus berria negoziatzen ari direnean bereziki larria da. Bi eskaera hauei buruz eztabaidatu ere egin nahi ez dutenekin zein estatus adostuko da, gizartea aktibatuz eta kaletik behartuz ez bada?

Egoera horrek guztiak ondorio politiko larriak ditu: herritarren lan eta bizi baldintzak okertzearekin batera eskuin muturra hauspotzen du. Pobretze orokorraren, ziurgabetasunaren eta etorkizun faltaren aurrean alternatiba errealik ikusten ez denean, eskuin muturra zabaltzen eta hazten da, are gehiago, aldaketa eragin beharko luketen alderdiek egoeraren onurak saldu edo egoeraren larritasuna lausotzen dutenean. Eta egoeraren benetako erantzuleak agerian uzten ez direnen heinean, krisiaren erantzukizuna kolektibo ahulenen gain jartzeko arriskua handitzen da, beldurra eta gorrotoa elikatuz, eta horrela sistema bera blindatuz.

Horren guztiaren aurrean, egoerak ezinbesteko egiten du langile klasearen eta herritar xumeon eskubideak eta interesak erdigunean jarriko

dituen erantzun sendo bat. Hego Euskal Herrian hamarkadak daramatzagu, nahiz eta lan eta babes sozialerako eskuduntza guztiak gure esku ez izan, beste errealitate sindikal eta sozial bat eraikitzen: lan esparru propioa, baldintza hobeak, antolakuntza eta borroka kolektiboa. Baina langileon pobretze eta prekarizatze prozesu honen aurrean, neurri eta tresna berriak behar ditugu.

Horregatik planteatu genuen Euskal Herrirako 1.500 euroko gutxieneko soldata propioa. Elkarrizketa eta bide instituzional guztiak jorratu ditugu proposamena aurrera atera dadin, baina ate guztiak itxi dizkigute. Gizarte antolatuaren proposamenak baztertu dituzte, eta patronalak zein instituzioek blokeoari eutsi diote. Egoera honetan, mobilizazioa eta kaleko presioa beste aukerarik ez digute utzi.

Horregatik deitu dugu martxoaren 17ko Greba Orokorra. Testuinguru horretan, langile klasearen eskubide eta interesak defendatuko ditugu, pobretzeari eta prekarizazioari aurre egingo diogu. Uste dugu hori dela geroz eta indar handiagoa hartzen ari den eskuin muturrari aurre egiteko modurik onena. Egoera horren ondorioak pairatzen ari diren langile eta herritarrei argi erakutsi nahi diegu egoeraren arduradunak nortzuk diren, irtenbideak eta alternatibak badaudela, eta antolatuta soilik defendatu ahal izango ditugula gure eskubideak eta gure etorkizuna.

1. GEROZ ETA POBREAGO

Martxoaren 17ko Greba Orokorren zergatiak ulertzeko, ezinbestekoa da gaur egungo testuinguruaren irakurketa sakona egitea. Ez gaude krisi puntual edo zikliko baten aurrean, krisi anizkoitz eta egiturazko baten aurrean baizik, non pobretzea, prekaritatea, desberdintasuna, krisi ekologikoa, autoritarismoaren gorakada eta demokrazia defizita elkar elikatzen ari diren. Testuinguru horretan, langile klasearen eta herritar xumeen bizi baldintzak okertzen ari dira, eta okertze hori ez da kasualitatea: erabaki politiko eta ekonomiko jakinen emaitza zuzena da.

1.1. Aberastasunaren banaketa bidegabea, pobrezia eta prekaritatea

Hamabost urtetan, argia da Hego Euskal Herrian gertatu dena: sortzen dugun aberastasuna nabarmen handitu da, baina gero eta modu bidegabeagoan banatu da. 2008tik gaur egunera, lan errenten pisuak behera egin du bai EAEn, bai Nafarroan. EAEn lan errentak BPGaren %49,3 izatetik %47,8 izatera pasa dira; Nafarroan, %48,5etik %46,6ra. Hau da, aberastasunaren garapena neurtzeko ekonomia kapitalista eta patriarkalaren parametro honek erakusten du, 1.933 milioi euro langileen soldate-tatik errenta altuetara eta kapitalera pasa direla.

Aldi berean, BPG erreala %13,2 hazi da. Hau da, langileok aberastasuna sortzen jarraitu dugu, baina sortutako aberastasun horren zati gero eta txikiagoa jasotzen dugu. Ondorio zuzena da soldatapeko bakoitzak, batez beste, 1.471 euro gutxiago jasotzen dituela EAEn eta 1.782 euro gutxiago Nafarroan, aberastasunaren banaketan.

Horri gehitu behar zaio soldaten bilakaera inflazioarekin alderatuta. Denbora tarte berean, soldatak inflazioaren azpitik hazi direnez, soldatapeko langile bakoitzak 14.000 euro inguruko eros ahalmen galera metatua izan du. Horrek esan nahi du enplegu bat izateak gero eta gutxiago bermatzen duela bizi duin bat izatea. Enplegua izan eta, aldi berean, pobre izatea ez da salbuespena, geroz eta hedatuagoa dagoen errealitatea baizik.

Paradoxikoki, testuinguru berean, enpresa handiek irabazi izugarriak dituzte: Iberdrola, Repsol, BBVA, Kutxabank, Tubacex, Sidenor, Viscofan, Acciona, Mondragon Korporazioa, baita siderometalurgia, automobilgiri-

tza, nekazaritza elikagaiak, banaketa edo zaintza sektoreetako enpresa talde nagusiek ere. Aberastasuna sortzen eta handitzen jarraitzen dugu, baina ez da langile eta herritar xumeengana iristen. Aberatsen artean metatzen da, geroz eta gehiago.

Ondorio sozialak larriak dira. Gaur egun, Hego Euskal Herrian bost pertsonatik bat —600.000 pertsona inguru— pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan dago, 2008an baino 137.758 pertsona gehiago. Pobrezia eta prekaritate horrek aurpegi zehatza du: pertsona migratuak, gazteak eta emakumeak dira egoera horren ondorio latzenak pairatzen dituztenak.

Azken lan erreformek behin behinekotasunaren estatistikak “makillatu” dituzte, baina laneko prekaritatea ez da desagertu. Aldizkako kontratu finkoek eta lanaldi partzialeko kontratu finkoek prekaritatea eta ezegonkortasuna normalizatu dute, eta egoera horrek lau aldiz gehiago eragiten die gazteei, emakumeei eta migraturiko pertsonari. Egungo ekonomia eta enpleguaren egituraketak ez dio pobrezia eta prekaritateari irtenbiderik ematen; are gehiago, pobretzea bera eragiten du.

Pobretze prozesu horren faktore nagusietako bat etxebizitza da. 2008tik hona, etxebizitzaren prezioak %30 eta %50 artean garestitu dira, bereziki alokairuan, soldaten bilakaeraren oso gainetik. Ondorioz, etxebizitza herritarren lehen arazo eta kezka bihurtu da, eta pobrezia eta bazterketa soziala eragiten duen faktore nagusietako bat da.

1.2. Planetaren mugen aurrean, klase borroka

Krisi sozial eta ekonomiko honi krisi ekologiko eta klimatikoa gehitu behar zaio. Egungo produkzio eta kontsumo eredu kapitalista mantentzeko, kalkulatzeko da 1,8 planeta beharko genituzkeela. Planetaren mugak gainditu ditugu, eta, beraz, horren ondorioak gero eta agerikoagoak dira: muturreko fenomeno meteorologikoak, lehorteak, uholdeak, elikadura krisiak eta energia krisiak.

Krisi ekologikoa ez da neutroa klase ikuspegitik. Langile klasea gure lurrrari eta ingurune sozialari lotuta dago, eta ondorioak zuzenean pairatzen ditu: prezioen igoera, lan baldintzen okertzea, osasun arazoak eta bizi baldintzen ziurgabetasuna. Hala ere, krisi horren aurrean ez da trantsizio bidezko eta sozialik bultzatzen.

Aitzitik, energia eta lehengaiak lortzeko lehia areagotu da. AEBen, Txinaren, Errusiaren, BRICSen eta Europar Batasunaren arteko borroka geopolitikoa indartu da, eta horrek areagotu ditu, urteotan modu nabarmenean ikusten ari garen moduan, neokolonialismoa, militarizazioa eta gerrak. Krisi ekologikoa konpontzeko aitzakiarekin, botere ekonomiko handiek euren interes estrategikoak blindatzen dituzte, eta berriz ere kostuak hegoalde globaleko herri eta biztanleen eta langile klasearen gain jartzen dira.

1.3. Dirua gerrarako, ez gizarte ongizaterako

Testuinguru horretan, European etengabeko presioa eragiten ari dira zerbitzu publikoak eta prestazio sozialak murrizteko. Austeritate politikak, gastu arauak, defizit mugak eta gastu muga berriz aktibatu dira. Frantziak publikoki iragarri du 40.000 milioi euroko murrizketak egingo dituela; Britainia Handiak, 6.000 milioioak; Alemaniak ere antzeko norabidea hartzeko asmoa du.

Aldi berean, paradoxikoki, Europa berrarmatzeko deia egin dute. ReArm Europe planaren bidez, 800.000 milioi euro mobilizatzeko asmoa azaldu dute, horretarako defizit eta gastu mugak aldi baterako gaindituz. NATOk, gainera, BPGaren %5 gastu militarra bideratzeko konpromisoa hartu du.

Hori ez da kontraesan hutsa; diru metaketa eta indar harremanak sendotzeko estrategia kontzientea da. Diru publikoa armagintzara bideratzen da eta, aldi berean, osasunean, hezkuntzan, zaintzan edo etxebizitzan inbertsioa murrizten da. Mezua argia da: badago dirua gerrarako, baina ez bizitza duinerako.

Hego Euskal Herrian egoera larria da. Zerbitzu publikoetako inbertsioan Europako azken muturrean gaude:

- Osasunean: -2,3 puntu portzentual (-2.800 milioi euro).
- Hezkuntzan: -1 puntu (-1.000 milioi euro).
- Etxebizitzan: -0,4 puntu (-640 milioi euro).

Eta gainera, uko egiten zaio errenta handienetatik diru gehiago biltzeari. Hego Euskal Herrian European baino BPGaren 7 puntu portzentual gutxiago biltzen dira zerga bidez, hau da, 8.440 milioi euro gutxiago. Diru

hori ez da desagertzen: enpresa eta kapitalaren finantza eta espekulazio zirkuituetara doa. Euskal Herriko enpresek, irabaziengatik Europako batez bestekoa baino ia 1.900 milioi euro gutxiago ordaintzen dute, lurralde bakoitzeko aldundiek ahalbideturiko onura, hobari, kenkari eta iruzur fiskalaz baliatuz.

1.4. Ezkerrak, alternatibarik ez

Testuinguru horren aurrean, kezkarria da ikustea ezker politikoaren zati handi bat ez dela ari alternatiba eraldatzaileak lantzen. Mundu osoan, ezkerreko alderdi askok diskurtso ustez aurrerakoi baten atzean politika neoliberalak normalizatu dituzte, elite ekonomikoekin adostasunak bilatu dituzte eta apustu erabat instituzionala egin dute, mugimendu sozialetatik urrunduz.

Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan, AEBetan, Italian, Argentinan, Txilen, Ekuadorren edo Bolivian ikus daitekeen joera da: “kudeaketa arduratsuaren” izenean, eraldaketa sakona albo batera uzten da. Horrek ez du esan nahi ezker osoa berdina denik, baina bai joera nagusi bat dagoela, gatazka soziala arintzeko eta kapitalaren interesak eta logika kolokan ez jartzeko.

Euskal Herrian ere antzeko dinamikak ikus daitezke. EH Bilduk eta Podemosek “herri akordioen” diskurtsoa erabili izan dute, baina praktikan EAJ, PSE-EE eta PSNren marko fiskala eta lehentasunak ez dituzte zalantzan jarri: aurrekontuak babestu, fiskalitate eredua mantendu eta osasun publikoa, hezkuntza edo zaintza sistema eraldatzeko behar diren erabaki eta neurriak ez dituzte bultzatu, salbuespen batzuk kenduta: gutxieneko soldataren gaian, etxebizitza legean eta Arabako erresidentzietako lurraldeko hitzarmenean esaterako.

Horrek guztiak ondorio politiko bat du: herritar askok ez dute ikusten bizi baldintzak hobetzeko bide errealik. Ezker instituzionalak ez badu egoera hori gogor salatzen eta argi erakusten norabide alternatiboa, frustrazioa eta desilusia hedatzen dira.

1.5. Jendarte antolatuaren ekimenei mespretxua demokrazia defizitaren adierazle

Geroz eta gehiago hedatzen ari den pobretze eta prekarizazio testuinguru horretan, are larriagoa da ikustea gizarte antolatuak egindako proposamen zehatzak sistematikoki baztertu direla. Hego Euskal Herriko gobernuek, eta bereziki EAJk, PSE-EEk eta PSNk, pobretze eta prekarizazioaren aurrean, egoerari aurre egin eta bizi baldintzak hobetzeko alternatibak eraikitzeke ekimenak eztabaidara onartu ere ez dituzte egin.

Horren adibide argia da EAEn pentsionisten Herri Ekimen Legegilearekin gertaturikoa. Izan ere, Gasteizko legebiltzarrak gutxienerako pentsioa osatu eta LGSaren parekoa izan dadin 145.142 sinaduraren babesak jaso zuen lege proposamena baztertu egin zuen, EAJ, PSE-EE eta Voxen aurkako bozkekin. Era berean, LGS hemen erabakitzeke sindikatuon proposamena blokeatu dute. Alde batetik, Confedebek eta CENek hori bermatuko lukeen Akordio Interprofesionala negoziatzeari uko egin diote; Nafarroan, UGTk eta CCOOek ere bai. Eta bestetik, Iruñeko parlamentuak HEL bidezko sinadurak biltzeko aukerari ere ez dio biderik eman, eta Gasteizko legebiltzarrak 138.495 sinadurek babestutako HELa eztabaidara ere ez du onartu, EAJ, PSE-EE, PP eta Voxek horrela erabakita.

Erabaki horiek, pobretze eta prekaritatea areagotu eta bizi baldintzak hobetzeko tresnak eta neurriak eragoztez gain, jarrera autoritario eta antidemokratikoak uzten dituzte agerian, instituzioak herritarrengandik aldenduz. Jendearen premiak asetzeko ekimenei uko egiteak instituzio eta alderdi politikoekiko frustrazioa eta mesfidantza sortzen ditu herritarrengan, eta horrek ondorio politiko larriak ditu.

Paradoxikoki, hori guztia gertatu da EAEn estatus politiko berri bat negoziatzen ari direnean eta Nafarroan LORAFNA berritzeko batzorde bat sortu denean. Hain zuzen ere, ustez, autogobernuan sakondu eta burujabetzarako tresnak bermatzea helburu beharko lukeen prozesu baten erdian. Ez da sinesgarria, are gutxiago koherentea, autogobernua sendotzeko eta euskal herritarren ongizatea handitzea helburu duen balizko prozesu bat bultzatu nahi dela adieraztea eta aldi berean, herritarren bizi baldintzak hobetzea eta erabakiak Euskal Herrian hartzea proposatzen duten gizarte antolatuaren ekimenak blokeatzea.

1.6. Eskuin muturraren gorakada

Testuinguru honetan, eskuin muturra indartzen eta hedatzen ari da mundu osoan: Trump, Milei, Bukele, Meloni, Le Pen, AfD, Orban, Vox, Aliança Catalana eta Euskal Herrian ere abertzaletasunaren inguruan ari dira sortzen mugimendu erreakzionarioak. Ez da fenomeno isolatua; pobretze orokorrak, ziurgabetasunak eta beldur sozialak elikatuta, egungo gizarte eta botere egitura mantendu nahi duen proiektu oso bat da.

Eskuin muturrak krisi ekonomiko, sozial, kultural eta identitarioa instrumentalizatzen du. Botere ekonomiko-finantzarioek eta eskuin muturrak, kontrolatzen dituzten komunikabideen laguntzarekin, errudun errazak seinalatzen dituzte: pertsona migratuak, emakumeak eta feminismoa, LGTBI pertsonak, ekologismoa, gazteak edota aniztasun funtzionala dutenak.

Helburua argia da: benetako erantzuleak —aberastasuna metatzen duten egiturak eta interesak— ezkutatzea, eta haserrea kolektibo ahulenen edota beraien proiektua ezbaian jar ditzaketen mugimenduen aurka bideratzea. Horrela, jarrera autoritarioak eta atzerakoiak normalizatzen dira, bazterketak areagotzeko, eskubideak murrizteko eta kontrol soziala handitzeko.

Horregatik, testuinguru honetan, gizarte aktibazioa eta Greba Orokorrak garrantzia berezia hartzen dute pobretzearen benetako arrazoiak eta arduradunak seinalatzeko, alternatibak eraikitzeko, burujabetzan aurrera egiteko eta gehiengo soziala aktibatzeko.

2. ERANTZUTENAKO PREMIA

Azaldutako testuinguruak erantzuna eskatzen du, erantzun sendoa nahi-koa dela esateko, gehiengo zabalak aktibatzen eta herritarren behar eta interesak kontuan izango dituzten bestelako neurriak behar ditugula adierazteko. Baditugu arrazoiak baita alternatibak ere.

Greba Orokorra deitu dugu. Gertatzen ari denaren inguruko gure irakurketa propioa egin eta sozializatzeko, hamarkadetan egiten ari garena balioan jartzeko, langile eta herritarrak aktibatzen eta dena geldituz, agenda politiko-soziala baldintzatzeko gaitasuna handitzeko deitu dugu.

Greba ez da helburu bat bere horretan, tresna baizik. Indar harremanak mugitzea eta aldarrikapen zehatzak erdigunean kokatzea ahalbidetzen duen tresna politiko-sindikala. Eta, batez ere, langile klaseari eta herritar xumeei mezu argi bat emateko tresna: pobretzearen eta inposizioaren aurrean, antolatu, erantzun eta bestelako politika eta neurriak behartu ditzakegu.

2.1. Ari gara

Gure marko politiko eta juridikoaren mugez jabetuta egon arren, urte luzez lanean aritu gara muga horiek gainditzeko, euskal langileriaren lan eta bizi baldintzak hobetzeko eta Lan Harremanen eta Babes Sozialaren Euskal Esparrua praktikan eraikitzen. Antolakuntzaren, mobilizazioaren eta negoziazio kolektiboaren bidez lortutako emaitzek erakusten dute borrokak baduela zentzua. Egindako lan hori aitortzea eta balioan jartzea ezinbestekoa da gaurko erronkak ulertzeko eta Greba Orokorren beharra kokatzeko.

Gernikako Estatutua eta LORAFNAren gabezia laboral eta sozialak ekintza sindikalarekin hobetu

ELAk hasieratik salatu du Gernikako Estatutuak eta LORAFNAk ez zituztela lan eta babes sozialerako eskumenak jasotzen. Lan legedia, bai gizarte babeserako oinarritzko legedia eta erregimen ekonomikoa espainiar estatuaren esku daude. Horrek esan nahi du arlo laboral eta sozialean oinarritzko erabakiak estatutik inposatzen direla: lan harremanen oina-

rria, hitzarmen kolektiboen markoa, lan zuzenbidea, pentsioak, kotizazio sistema, langabezia prestazioak, etengabeko trebakuntza, lan osasuna...

Horrek esan nahi du Madrilek erabakitzen duela gure lan harremanen eta babes sozialaren egitura: lan araubidea, kaleratzeak, indemnizazioak, prestazioak, pentsioak... Horrek, gainera, gure lan esparrua hauskorrago bihurtzen du, eta patronalari zein estatu aparatuari aukera ematen die euskal eremuko lorpenak neutralizatzeko.

Lan zentroetako eta kaleko borrokak eraiki duena

Baina muga horiek egonda ere, mobilizazioaren, grebaren eta negoziazio kolektiboaren bidez, eta kasu batzuetan espainiar estatuko Langileen Estatutuan beharrezko aldaketak eraginda, eremu askotan, praktikatik, Euskal Lan Esparrua eraikitzen joan gara.

Euskal Herriko hitzarmenek, oro har, soldata, jardunaldi, baimen, eskubide eta berme hobeak dituzte; eta, orokorrean, lan eta bizi baldintzak desberdinak eta hobeak dira. Ez da kasualitatea, ezta patronalaren "borondate onaren" emaitza, indar harremanen ondorioa da. Horregatik diogu: euskal lan esparrua egunero eraikitzen dugula, lantokietan, sektoreetan, kalean eta negoziazio mahaietan.

Urtero, Euskal Herrian, lan baldintzak hobetzen dituzten ehundik gora garaipen lortzen ditugu. Horien aurrean, "borrokak ez du ezertarako bali" diotenei edo "ELAren ekarpena zein da?" galdetzen dutenei, erantzuna sinplea da: antolakuntza, mobilizazio eta grebek lortu dituzte garaipen horiek, hitzarmen horiek, jardunaldi murrizketak, soldaten igoerak, klausulen blindajeak edota ratio eta zerbitzu hobekuntzak.

Hauek dira Euskal Lan Esparru propioa eraikitzeko azken urteotako egin-dako borroken hainbat adibide esanguratsu:

- **Jangela kolektiboak: estatuko hitzarmenen inposiziotik euskal negoziazio esparrua berreskuratzeko borroka**

2010etik aurrera, Espainiako patronalek, CCOO-k eta UGT-k os-talaritzako estatu mailako hitzarmena bultzatu zuten, Euskal Herrian negoziazioa eragotzi eta estatuko hitzarmena inposatze-ko. Euskal Herriko langile eta sindikatuen negoziazio kolektibora-

ko eskubidea urratzeaz gain, inolako zilegitasun demokratikorik gabe eginiko inposaketa izan zen. Izan ere, EAEn, ELA eta LABek ordezkartzaren %83 daukagu eta CCOO eta UGTek %17 besterik ez, baina espainiar estatuan duten gehiengoa baliatu zuten euskal hitzarmenak indagabetzeko.

Zer ekarri zuen inposizio horrek? Datuak argiak dira: soldatak %40 jaistea (8.000 euro gutxiago urtean), eta jardunaldia %3 handitzea (60 ordu gehiago urtean). Hau da: gehiago lan egin, gutxiago kobratu, eta gainera, lan baldintzak Euskal Herrian erabakitzea eragotzi.

Horren aurrean, antolaketa, mobilizazioa eta ordezkartzan gehiengoa izateak hainbat lorpen eta aukera berriak ireki dizkigu. Lehenik EAEko Ostalaritza Akordio Markoa adostuz eta ondoren euskal negozioazio esparrua irekiz, hitzarmen propioa lortzeko aukera mahai gainean jarritz. Hitzarmen berrirako gure aldarrikapenek lortuz gero, estatukoarekiko diferentzia eta onura nabarmenak ezarriko lituzke. Besteak beste, soldaten %63ko igoera suposatuko luke (18.253 euro gehiago urtean) eta jardunaldiaren %13ko murrizketa (208 ordu gutxiago urtean). Horrez gain, lanaldi partzialak mugatu eta osatzeko mekanismoak eskatzen ditugu, prekaritateari sarbide nagusietako bat ixteko asmoz.

- **Ehungintza merkataritza: gure hitzarmenak indagabetzeko estrategiari muga**

Euskal lan esperrua mantentzeko eta lan baldintza duinen aldeko borrokaren aldeko beste adibide argi bat da ehungintza merkataritzakoa da. Arropa marka handiek (Inditex, H&M, Primark, Mango, Cortefiel...) patronal propioa sortu zuten (ARTE) eta estatu mailako hitzarmen propioa bultzatu EAEko lurralde hitzarmenak saihesteko. Hemen ere, negozioazio kolektiborako eskubidea urratu eta langileek demokratikoki hautaturiko ordezkartza baliorik gabe uzten saiatu ziren patronala CCOO eta UGT. Izan ere, ELAk erabateko gehiengoa baitauka Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Zer zekarren estatu hitzarmenak? Soldatetan %24ko jaitsiera (6.000 euro gutxiago urtean) eta, batez ere, igande eta jaiegune-

tako lanaldiaren normalizazioa. Hau da: soldatak txikitu, lanaldia-
ren antolaketa okertu, eta bizitza soziala eta familiarra oztopatu.

Antolaketa sendo batek, urteetako mobilizazioak eta 21 greba
egunek, ordea, euskal esparrua defendatzeko bidea irekitzen ari
dira. Gure helburua argia da: ARTE patronal berriak Araba, Biz-
kaia eta Gipuzkoako ehungintza merkataritzako hitzarmenak, lan
zentroak eta langileak estatuko hitzarmen berriaren eraginpetik
ateratzea. Horrek, soldatak mantentzeaz gain, jardunaldian eta
egutegian hobekuntza nabarmenak ekarriko lituzke, lana eta bizi-
tzaren antolaketa hobetuz, atsedenerako eskubidea bermatuz eta
bizi baldintzak duinduz. Urte askotan aldarrikatu, borrokatu eta
lorturiko “Jaietan denok jai: hemen zero” defendatu eta manten-
tzea ere suposatuko luke. Izan ere, Hego Euskal Herria salbuespen
eremua da inguruko lurraldeekiko, ehungintza merkataritzako lan-
gileek jai egunetan jai egiteko aukera mantentzen baitute.

- **Kimika sektorea: estatuko hitzarmen eskasa gainditzeko
euskal hitzarmenen aldeko borroka eta enpresa hitzarmenen
bidezko hobekuntzak**

CCOO eta UGTk kimika sektoreko estatuko hitzarmena sinatu
berri dute, lan eta bizi baldintza oso kaskarrak ezartzen dituen.
Hemen ere, ordea, EAEko sektoreko ordezkariak bestelako zile-
gitasuna eta indar harremana islatzen ditu: ELA %34, LAB %22,
CCOO %21 eta UGT %14. Nafarroan, aldiz, ordezkariaren bana-
keta ezberdina da: ELA %24, LAB %19, CCOO %26 eta UGT %27.

Hego Euskal Herriko sektore hitzarmen propioak lortzeko borro-
ka blokeatuta dago, patronalen eta CCOO eta UGTren jarreraren
ondorioz. EAEn, CCOO eta UGT aldarrikapenera batzea lortu
dugun arren, Nafarroan uko egin diote patronala presionatzeari.
Langileen interesen defentsatik ulertezina da CCOO eta UGTek lan
eta bizi baldintzak hobetuko lituzketen hitzarmenen negoziazioa
oztopatzea.

ELAk, Hego Euskal Herriko sektore hitzarmenen aldeko borrokan
jarraitzeaz gain, ordezkari eta indar nahikoa dugun enpresetan
estatuko erreferentzia nabarmen gainditzen duten enpresa hi-
tzarmenak lortu ditu. Indar harremanak ahalbidetzen duen tokian,

euskal errealtatera egokitutako baldintzak eta negoziazio eremu propioak ezarri dira.

Testuinguru horretan, Confedebek negoziatzeko borondaterik ez izatea eta negoziazio kolektiborako eskubidea oztopatzea salatze-ko helegitea aurkeztu dugu epaitegietan.

Patronalaren eta estatuko sindikatuen blokeoa gainditzeko eta euskal lan esparrua eraikitze bidean, sektore hitzarmen propioa lortzeko eta euskal langileen baldintzak hobetuko dituzten enpresa hitzarmenak borrokatzen jarraituko dugu.

- **Nafarroako barazki kontserbak: lurralde hitzarmena ezabatu eta estatu markoa inposatzeari aurre**

Nafarroako barazki kontserbetako patronalak, CCOO eta UGTk Nafarroako hitzarmena ezabatu zuten eta estatu mailakoa inposatu. Ondorioa: urteko soldata 18.000 euro eskasetara mugatzea, eta aldiakako kontratu finkoak ugaritzea, egiturazko prekaritatea ezarri. Kasu honetan ere, ordezkariak banatua eta nahiko orekatua da: ELA %24; UGT %27; CCOO %26; LAB %19. Baina CCOO eta UGTk uko egin diote Nafarroako hitzarmenari, estatu markoa naturalizatuz.

Egoera horretan, langileen artean egoera eta aukerak ikus arazi, jendea borrokarako irabazi, ordezkariak handitu eta soldatak eta lan baldintzak nabarmen hobetuko dituen Nafarroako negoziazio esparrua berreskuratzeko mobilizazio eta borroka aktibatzen ari gara.

- **2012ko lan erreforma indargabetzeko estrategia: ultraaktibitatea eta hitzarmenen aldeakarako inplikazioaren aurkako klausulak**

2012tik aurrera, lan erreformak patronalari tresna oso gogorrak eman zizkion hitzarmenak eta lan baldintzak okertzeko: besteak beste, kaleratzea errazago eta merkeago, hitzarmenen ultraaktibitatea ahuldu, eta hitzarmenen aldeakarako inplikazioak egiteko aukera.

Horren aurrean, greba eta mobilizazio ugari deitzez gain, ELAk ehunka enpresa hitzarmen sinatu ditu ultraaktibitatea berma-

tzeko eta aldebakarreko inaplikazioa ekiditeko klausulekin. Inurri lana, baina funtsezkoa Euskal Herriko milaka langileren eskubi-deak blindatzeko, euskal lan esparrua sostengatzeko eta Euskal Herria lan erreformaren neurri kaltegarri hauen aurrean, hein handi batean, salbuestsitako eremu bihurtzeko.

- **Arabako erresidentziak: estatuko hitzarmenen miseriatik eduki duineko lurralde hitzarmenera**

Zaintza sektorean, prekaritatea eta feminizazioa gurutzatzen dira. Eta horregatik borrokak balio sinboliko eta politiko handia du. Arabako adineko pertsonen egoitzetan, orain gutxi arte, miseriazko baldintzak ezartzen zituen estatu hitzarmena zegoen indarrean. Nafarroan oraindik ere estatu hitzarmen eskasak darrai, nahiz eta 30 greba egun egin diren.

6 urteko borroka eta 60 greba egun esker, 2025eko abenduaren 16ean, Arabako erresidentzietan lurralde hitzarmena lortu zen: soldatak %32,5 igo dira (urtean 5.000 euro gehiago) eta jardunaldia %5,6 murriztu (100 ordu gutxiago urtean). Hori ez da, ordea, lorpen isolatua. Izan ere, aurrez Gipuzkoa eta Bizkaiko erresidentzietako langileek egindako borrokek eta lorturiko garaipenek bide ireki ziren. Bizkaia eta Gipuzkoako erresidentzietako soldatak estatukoak baino %36 handiagoak dira (urtean 9.000 euro gehiago) eta lanaldia %11 txikiagoa (180 ordu gutxiago urtean). Elkar elikatu eta indartu diren borrokak lan baldintzen euskal esparrua etengabe zabaltzen ari dira.

Arabako sektore lorpen hau erdiesteko ordezkaritza sindikala erabakigarri izan da (ELA %65, UGT %21, LAB %9), langileen antolakuntza eraiki, mobilizatu, greba egin eta patronala eta instituzioak interpelatzeko hitzarmena lortu arte.

- **Etkez etxeko laguntza: 23 udaletan hitzarmen propioa, estatuko hitzarmenaren prekaritatea gainditzeko**

Udaletako etkez etxeko zaintza zerbitzuan indarrean dagoen estatuko hitzarmena erabat prekariora da, miseria hutsa. Hala ere, ELAk gehiengoa duen 23 udaletan hitzarmen propioak lortu dira, lan baldintzen hobekuntza esanguratsuak eraginez: soldatak %39

igotzea lortu da (urtean 10.300 euro gehiago) eta lanaldia %9 murriztu da (143 ordu gutxiago urtean).

Bizitzarako eta gizartearentzat funtsezkoa den esparru honetan, ezinbestekoa da lan baldintza duinak izatea zerbitzu egokia bermatzeko. Langileen baldintzek zuzenean eragiten dute zerbitzuaren kalitatean, bai zaintza jasotzen duten pertsonen bizi baldintzetan, bai arreta duina eta jarraitua eskaintzeko aukeran.

Borroka eta lorpen hauek pauso erabakigarriak dira Euskal Herrian bestelako zaintza eredu bat eraikitzeko bidean: lan baldintzak hobetzea ez ezik, ezinbesteko zerbitzu publiko bat modu egokian eta duintasunez bermatzeko eredua sendotzen dute.

- **Sektore publikoa: lan baldintzak eta soldatak Euskal Herrian erabakitzeke borroka**

Sektore publikoan, autogobernua erabat mugatu eta higatua dago. 2010era arte, Hego Euskal Herrian erabakitzen genituen funtzio publikoko langile kopurua, erreposizio tasa, soldatak, erretiro aurreratua edota partziala. Baina 2010eko maiatzaren 20ean, Errege Dekretuz, Estatuak bereganatu zituen konpetentzia horiek eta gure erabaki ahalmena eta eskuduntzak erabat mugatu zituen.

Geroztik, sektore publiko osoan greba eta mobilizazio ugari egin dira, Gasteizko eta Iruñeko gobernuei eskuduntza berreskuratzea exijitu zaie, eta alderdi politikoei presioa egin zaie lan baldintzak Hego Euskal Herrian erabakitzeke. 2023an, Sanchezen inbestidurarako EAJ-PSOE akordioan jaso zen funtzio publikoko lanpostu kopurua eta soldatak Euskal Herrian erabakitzeke konpromisoa. Baina, ez Iruñeko eta ez Gasteizko gobernuek, ezta euskal alderdi politikoek ere, ez dute behar adinako presiorik egin akordio hori betearazteko; aitzitik, Madrilatik menpekotasun logikan jarraitzen dute. Ondorioa argia da: presioa egiten jarraitu behar dugu.

Hala ere, bada adibide esanguratsu bat erakusten duena borondate politikoa eta indar sindikala daudenean marko murriztaileak gainditzea posible dela. Eusko Jaurlaritzako

Hezkuntza Saileko sukalde eta garbiketa langileek, mobilizazioaren eta grebaren bidez, Estatuak ezarritako soldata igoeren mugak gainditu dituzte. 2022tik 2025era bitartean KPlaren arabera soldata igoerak adostu dituzte, urteko lanaldia 108 eta 120 ordu artean murriztea hitzartu dute, behin behinekotasuna %8ra jaisteko konpromisoa lortu dute, eta ratioak %17 gutxitzeko.

Kasu honek argi erakusten du ordezkartza eta antolakuntza nahikoa dagoenean, mobilizazioaren eta borrokaren bidez posible dela ezinezkoa zirudiena lortzea, ustezko muga guztiak gaindituz eta Euskal Herriko lan esparru propioa eraikiz.

2017ko EAEko Akordio Interprofesionala: bertako hitzarmenak estatuko enbretik lehenesteko lehen lortpena

2017ko urtarrilaren 17an, EAEn sinatu genuen akordio interprofesionalak bermatu zuen bertako hitzarmenek estatuko hitzarmenen aurrean lehentasuna izatea. Lortpen hori ez zen patronalaren borondate onaren ondorio izan; aitzitik, enpresa eta sektore askotan egindako mobilizazio eta greba ugarien emaitza izan zen, baita hainbat esparrutan Confedebas-ken ordezkartza bera zalantzan jarri izanaren ondorio zuzena ere. Nafarroan, ordea, ezin izan zen antzeko akordiorik lortu, CENek eta CCOO eta UGTk adostasunera heltzeko borondaterik erakutsi ez zutelako.

Hala ere, aurretik Ostalaritzako Akordio Marko Sektoriala sinatu genuen ELAk, LABek, Ostalaritza Federazioak eta Confedebaskek; akordio hori erreferentzia garrantzitsua izan zen gero EAEko Akordio Interprofesionala ahalbidetzeko.

Espedientzia honek berriro ere agerian utzi zuen gehiengo nahikoa, antolakuntza, indar harremana eta konfrontazio gaitasuna dauden lekuan aukera errealek sortzen direla bestelako akordioak lortzeko eta lan baldintza hobek ezartzeko.

Euskal hitzarmenen lehentasuna, lege: borroka sindikal eta presio politikoaren emaitza

2024ko ekainaren 20an Espainiako Diputatuen Kongresuak onartu zuen lurralde eta autonomia erkidegoetako hitzarmenek estatu mailako

hitzarmenen aurrean lehentasuna izatea. Aurrez, 2023ko abenduaren 20an Ministro Kontseiluak dekretuz onartu zuen. Lorpen hau, ordea, ez da inondik ere kasualitatearen edo borondate politiko espontaneoaren ondorioa izan; ELAk urte luzez egindako salaketa, mobilizazio eta borroken emaitza zuzena baizik.

2010etik aurrera etengabe salatu dugu estatu markoaren inposizioa —gogora ekarri behar da 2010eko lan erreforma EAJren abstentzioari esker onartu zela—. Ordutik, sektore eta enpresa askotan borrokak, mobilizazioak eta grebak egin ditugu, euskal negozioazio esparru propioa eta lan baldintza desberdinak aldarrikatzeko, eta kasu askotan lortzeko ere bai.

2022ko lan erreforma ere salatu genuen, kaleratze erraz eta merkeak, hitzarmenen aldebakarreko inaplikazioak eta estatu hitzarmenen lehentasuna mantentzen zituelako. Horren aurrean, euskal hitzarmenen eta lan baldintza duinen aldeko borrokan tinko jarraitu dugu.

Mobilizazio garrantzitsuak egin ditugu “Ez gaitzazue saldu Madrilen / No nos vendáis en Madrid” lelopean, bai Euskal Herrian bai Madrilen bertan. Euskal alderdiei presioa egin diegu, bilerak eskatu eta gure aldarrikapenak Madrilen defendatzeko konpromisoa exijituz. Borroka eta presio horien ondorioz, EAJk Sanchezen bigarren inbestidurarako akordioan euskal hitzarmenen lehentasuna jasotzea onartu zuen, eta horrek Langileen Estatutuaren 84.3 eta 84.4 artikulua aldatzea ahalbidetu du.

Kasu honetan ere argi geratu da: konfrontazioak, antolakuntzak eta presio politikoak fruituak ematen dituzte.

2.2. ETA ORAIN: “1.500€KO LGS HEMEN ERABAKI”

Hasieran azaldu dugun pobretze eta prekarizazio etengabeko testuinguruan, Euskal Herriko langileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko eta Euskal Lan Esparrua eraikitzeko bidean mugarri berri bat ezarri nahi izan dugu: Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) Euskal Herrian erabakitzea, eta gutxienez 1.500 eurokoa izatea.

Berdintasun soziala bultzatu eta 165.000 langile pobrezia egoeratik atera

Gaur egun Espainiako Estatuko LGSa 1.184 eurokoa da, eta agerikoa da kopuru hori ez dela nahikoa Euskal Herrian bizitza duina bermatzeko. 2022an, Euskal Herriko ongizate muga 1.654 eurokoa zen; eta, gainera, bizi kostua nabarmen handiagoa da hemen Espainiako Estatuko batez bestekoarekin alderatuta —etxebizitza, zerbitzuak eta oinarritzko lehen-gaiak, besteak beste—. Horregatik aldarrikatzen dugu: “Hemen bizi, hemen lan egin, hemen erabaki”.

Hego Euskal Herrian, 305.000 langilek kobratzen dute hilean 1.500 euro baino gutxiago. Horietatik, 165.000 inguru lanaldi osoan ari dira, eta, beraz, LGS altuago batek zuzenean eragingo lieke lehen unean. Horrek esan nahi du Euskal Herrian erabakitako 1.500 euroko LGS propio batek 165.000 langile pobrezia egoeratik ateratzeko gaitasuna izango lukeela.

Neurri horrek pertsona askoren bizi baldintzak hobetzeaz gain, kohesio soziala indartuko luke. Izan ere, LGSaren igoerak soldata arrakalak murrizten ditu: jatorriaren, generoaren, adinaren edo aniztasun funtzionalaren arabera desberdintasunak txikituz. Hori bereziki garrantzitsua da gaur egungo testuinguruan, non botere ekonomikoek, eskuin muturrak eta faxismoak langile klasea zatitzeko eta elkarren aurka jartzeko estrategiak zabaltzen ari diren.

Gutxieneko soldata nabarmen igotzeak zatiketa estrategia horiek ahultzen ditu, prekaritatea eta soldaten dumpingari lotutako logikari zuzenean aurre eginez.

Aberastasunaren banaketa bidezkoagoa

Euskal Herrian erabakitako LGS propioa ez da gutxieneko soldataren igoera hutsa; aberastasunaren banaketa bidezkoagoa lortzeko tresna estrategikoa da. Helburua da enpresen irabazi handien zati bat mugatzea, langileen mesedetan, eta azken urteetan areagotzen ari den desberdintasunari aurre egitea.

Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa den testuinguru honetan, gutxieneko soldata kalkulatzeko ohikoa den formulak, batez besteko soldataren %60aren erreferentziak, alegia, gaitasun oso mugatua

du desoreka hori zuzentzeko. Are gehiago, desberdintasuna betikotu edo areagotzeko arriskua du. Izan ere, azken hamarkadetan gero eta aberastasan handiagoa sortzen ari da, baina lan errentek pisua galtzen jarraitzen dute banaketan. Horrek esan nahi du erreferentzia hori lan errenten proportzioan ezartzen denean, gero eta oinarri murritzago baten gainean egiten dela, enpresa eta kapital errentak etengabe handitzen diren bitartean, desoreka estrukturala mantenduz edo sakonduz.

ELAren proposamena argia da: Aberastasunaren benetako banaketa bat eman dadin LGSak Euskal Herriko BPG per capitaaren %65 izan behar du. Hau da, sortzen den aberastasun osoaren %65eko proportzioan eta ez batz besteko soldataren baitan. Gaur egungo datuekin, horrek 1.795 euroko soldata suposatuko luke.

Erreferentzia hori izanik ere, egungo testuinguruan, 1.500 euroko LGS propioa norabide egokian emandako lehen urrats garrantzitsua dela uste dugu. Izan ere, enpresa eta patronalentzat ezin da proposamen neurrigabe edo maximalistatzat jo; oso esfortzu ekonomiko txikiarekin lor daitekeen neurria baita. Eta, aldi berean, egoera okerrean dauden langileen soldata eta bizi baldintzak hobetzeko tresna garrantzitsu eta eraginkorra da.

Hau honela izanik ere, ez da soilik soldata baxuenei eragingo liokeen neurria, ez behintzat epe ertainera. Izan ere, LGS propio bat ezartzeak gainerako hitzarmenen negoziazioetan soldata guztiak gorantz bultzatuko litzuke, langile guztien lan eta bizi baldintzak hobetzeko aukerak zabalduz. Eragin zuzena soldata baxuenetan izango lukeen arren, zeharka soldata eskala osoan eragingo luke, negoziazio kolektiborako baldintza hobeak sortzen lagunduz.

Ziurrenik horrexegatik jartzen dituzte oztopoak Euskal Herriko patronalek eta haien interesetara lerrokatzen diren alderdi politikoei: badakitelako neurri hau onartzeak, ekonomikoki guztiz eramangarria izan arren, aberastasunaren banaketa bidezkoago baten aldeko pausoa dakarrela eta irabaziak handitzeko duten logikarekin talka egiten duela.

Europako eta nazioarteko herrialdeetara gerturatzea

Euskal Herriko produktibitatea —hau da, lan ordu bakoitzeko sortzen dugun aberastasuna— Europako herrialde industrializatuenen parekoa da, eta Espainiako Estatuko batez bestekoa baino nabarmen handiagoa.

Hala ere, sortzen dugun aberastasun horrek ez du isla bera soldatan, ezta Lanbidearteko Gutxieneko Soldatan ere. Aldea nabarmena da Europako erreferentziekin alderatuta: Alemanian LGSa 2.054 eurokoa da; Frantzia, 1.767 eurokoa; Britainia Handian, 2.231 eurokoa; Belgikan, 2.071 eurokoa; Luxenburgon, 2.571 eurokoa; Herbehereetan, 2.134 eurokoa; eta Irlandan, 2.134 eurokoa.

Euskal Herrian LGS propioa ezartzearen aurka daudenen artean, bada argudio errepikatu bat: estatu beraren barruan gutxieneko soldata ezberdinak ezartzea ezinezkoa dela. Baina munduko eta Europako errealtateak argi eta garbi gezurtatzen du baieztapen hori. Izan ere, Alemania, Kanada, AEB, Japonia, Errusia, Brasil, Indonesia eta beste hainbat estatutan gutxieneko soldata ezberdinak daude estatu barruko probintzia, autonomia erkidego, estatu federatu edo bestelako lurralde antolamendu politikoen arabera.

Beraz, “ezin da” esaten digutenean, gehienetan benetan esan nahi dutena da ez dutela nahi. Izan ere, nahi izanez gero eta borondate politikorik badago, posible da; eta ez hori bakarrik: bidezkoagoa ere bada, sortzen den aberastasunaren eta soldaten arteko arrakala murrizteko eta lan baldintza duinak bermatzeko.

Posible da: Langileen Estatutuko 27. artikulua aldatuz

Badira Euskal Herrian LGSa erabakitzeko eskumenik ez dugula esaten dutenak edo hori soilik Akordio Interprofesional baten bidez egin daitekeela diotenak. Jarrera horiek, sarritan, patronalaren betoa baliatuz proposamena blokeatzeko edo ahultzeko ahaleginarekin lotuta daude; edo, bestela, erantzukizun politikoa saihesteko borondatearekin, edota zuzenean neurriaren aurkakotasunarekin.

Egia da gaur egun Langileen Estatutuaren 27. artikulua LGS finkatzeko eskumena Espainiako Gobernuari esleitzen diola. Hain zuzen ere, horixe da gure proposamena: artikulua hori aldatzea, autonomia erkidegoek —eta, beraz, Euskal Herriak— beren lurraldean LGS propioa ezartzeko eskumena izan dezaten.

Aldaketa hori Diputatuen Kongresuan onartu behar da, eta testuinguru politiko honetan euskal alderdiak giltzarri dira, bai aldaketa aurrera ateratzeko, bai Espainiako Gobernuaren gobernagarritasunerako. Horregatik, ez gaude “auzi tekniko” baten aurrean, baizik eta erabaki politiko

baten aurrean. Beraz, argia dago nahi izanez gero, posible dela; eta borondate politikorik badago, lor daitekeela.

Burujabetza eta autogobernua indartu, eduki sozialez bete

Euskal Herrian LGS erabakitzeke aukerak lotura zuzena du autogobernuarekin eta burujabetzarekin. Izan ere, negozioazio kolektiboan eta gai sozialean behin eta berriro erabiltzen dugun "hemen erabaki" aldarriak gure erabakitze eskubidea sintetizatzen du: autogobernua eta burujabetza eduki errealek eta sozialez hornitzeko borondatea, alegia.

LGSa Euskal Herrian erabakitzeak aukera ematen digu Gernikako Estatu-tuan eta LORAFNAn jasotzeke geratu zen Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren zati bat lortzeko, eta, aldi berean, autogobernuari eta burujabetzari eduki sozial errealek eta eraginkorra emateko, lan-gileen bizi baldintzetan zuzenean eragiten duen eskumena eskuratuz.

Horrez gain, azken hamarkadetan edukiz hustu eta higitu diren funtzio publikoko hainbat eskuduntza berreskuratzeko indarra egiten du. Gutxieneko soldata hemen erabakitzeke gaitasunak presioa sortzen du funtzio publikoko soldatak, lanpostuak eta lan baldintzak ere Euskal Herrian erabakitzeke bidean aurrera egiteko.

Testuinguru honetan, galdera saihestezina da: nola uler daiteke Euskal Herriko alderdi politiko guztiek kontzertu edo konbenio ekonomikoa sutsuki defendatzea, baina Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Esparru propioa ez defendatzea? Nola justifika daiteke bata bai eta bestea ez, klase interesek tartean esku hartzen ez badute behintzat?

Edo, bestela esanda, agian alderdi batzuei kontzertu edo konbenio ekonomikoa erabilgarria zaie enpresen eta aberatsenen interesak babesteko, baina Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Esparru propioa ez; eta horregatik ez dute azken hau lotzeko benetako borondaterik?

Bidea ixten saiatu dira, baina ireki behar dugu

Euskal Herrian erabakitzeke bidea bi norabidetatik ixten saiatu dira.

Lehenik, Akordio Interprofesionala boikotatuz. Nafarroan, CENek, UGTk eta CCOOK; EAEn, Confefaskek. EAEn, gainera, helegitea aurkeztuta dago

Confedebaskek negoziatzeari uko egin diolako. Hala ere, kontuz ibili behar dugu: eztabaida Akordio Interprofesionalera soilik mugatzeak patronalari beto ahalmena ematen dio, eta ardura ez da patronalarena bakarrik, baita gobernuena eta alderdi politikoena ere. Gainera, balizko Akordio Interprofesionalak espresuki jaso behar du langile guztiei eragiten diela; bestela, hitzarmena dutenei soilik aplikatuko litzaieke, eta egoera prekarioenean dauden milaka langile babesik gabe utziko lituzke, batez ere, etxeko eta zaintzako langileak, azpikontratazio kateetakoak, ETTetakoak, lanaldi partzialekoak, aldizkako kontratu finkoak, hau da, modu berezian, pertsona migratuak, emakumeak eta gazteak. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak, CCOOek eta UGTk defendatzen duten "hitzarmenetako gutxieneko soldata" ez da nahikoa: gutxieneko soldata orokorra behar dugu.

Bigarrenik, Herri Ekimen Legegilea mespretxatuz. Nafarroan, sinadurak biltzeko aukera bera ere ukatu digute; horren aurrean, alderdi politiko guztiekin bilerak egiten ari gara, LGS Nafarroan ezartzeko lege baten lanketa abiatu dezaten. EAEn, berriz, Legebiltzarrak ez du eztabaidara ere onartu 138.495 sinaduraren babesa izan duen HELa: EAJk eta PSE-EEk eztabaida blokeatu dute, eta Eusko Jaurlaritzak jarrera hori partekatu du.

Jarrera hauek guztiak antidemokratikoak eta autoritarioak dira: sindikatuak eta eragile sozialak mespretxatzen dituzte, gizarte antolatuaren ekimenei lekuri eman gabe. Gainera, euskal herritarren lan eta bizi baldintzak hobetzeko eta hemen erabakitzeko tresnei uko egiten diete. Horrek instituzioekiko mesfidantza areagotzen du, demokrazia liberal-formala higatzen du, eta eskuin muturrarentzat eta faxismoarentzat bazka bihurtzen da.

Ondorioa argia da: konfrontazioaren eta mobilizazioaren bidea besterik ez digute uzten. Aurrez ere lortu dugu —euskal hitzarmenen lehentasuna—, eta oraingoan ere borroka horri eutsi behar diogu.

2.3. Autogobernuaren inguruko eztabaidaren erdian

LGSaren inguruko gatazkak autogobernuaren eta estatus politikoaren inguruko eztabaidaren erdian harrapatzen gaitu. Ez da kasualitatea. Lan harremanek eta babes sozialak agerian uzten dituzte egungo marko politikoaren mugak, eta zer dagoen benetan jokoan: gizartea eta gure egitu-

rak eraldatzeko tresnak izango ditugun ala Espainiaren menpeko egungo markoa betikotuko den.

Gaur egungo egitura politiko, ekonomiko eta soziala deseraiki eta langileen mesedetan eraikitzeko, eskumenak behar ditugu. Burujabeak izan nahi dugu langileon beharrei erantzungo dien mundu bat eraikitzeko: politika ekonomikoak, industrialak, sozialak eta kulturalak behar ditugu, langile klaseak hobeto bizi ahal izateko, beste herrialdeekin eta planetarekin orekan. Horixe dago jokoan estatus berriaren eztabaidan, eta gutxieneko soldataren auziak hori guztia ezin hobeto laburbiltzen du: erabakiak non hartzen diren, zeinen interesen arabera, eta zein tresna ditugun gehiengo sozialaren alde jarduteko.

ELA sindikatu independentista da. Horregatik, EAEn eta Nafarroan estatus politiko berri baten negoziazioa eta lorpena ez dira berez azken helburua. Hala ere, Euskal Errepublikarako bidean pauso garrantzitsua izan daitezke, baita indar harremanak hobetzeko aukera ere. Edozein kasutan, administrazio esparru bakoitzak bere estrategia eta ibilbidea garatu behar ditu helburu berera heltzeko.

Argi dago, Gernikako Estatutuak eta LORAFNAk ez dute Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua bermatzen. Negoziazio kolektiboan lortzen dugunetik harago, ez dugu lan esparruan eta babes sozialeko arlo nagusietan burujabetza tresna propiorik. Horixe da muina: autonomia formalak eduki sozialik ez badu, hutsala da.

ELArentzat, burujabetza politikoak zentzua du langile klasearen eta gehiengo sozialen lan eta bizi baldintzak hobetzeko balio badu. Autogobernuan aurrera egiteak justizia soziala, lan eskubideak eta euskal kultura eta hizkuntzaren garapena bermatu behar ditu.

Horregatik, ELArentzat autogobernuaren edo estatus politiko berri baten inguruko edozein akordio ezinbestean honako edukiak izan behar ditu:

- **Lan harremanak eta babes soziala erdigunean**
 - Lan legediaren eskumen legegile osoa.
 - LGS bere osotasunean arautzeko ahalmena.
 - Gizarte Segurantzak eta babes sistemaren eskumen guztiak.
 - Euskal Herriko hitzarmenen eta lanbidearteko akordioen lehentasuna bermatuko duen egitura juridikoa.

- **Funtzio Publikoa eta zerbitzu publikoak.**
 - Funtzio Publikoa osatzen duten sektore guztien gaineko esku-men osoa.
 - Langile publikoen lan baldintzak osotasunean arautzeko ahalmena.
- **Burujabetza ekonomiko eta fiskala.**
 - Zerga guztiak biltzeko eskumena.
 - Gehiengo sozialaren beharrei erantzungo dieten aurrekontu eta politika ekonomikoak garatzeko ahalmen osoa, inolako mugarik gabe.
- **Erabakitzeko eskubidea eta nazio aitortza.**
 - Euskal Herriak bere etorkizun politikoa libreki erabakitzeko eskubidea.
 - Euskal Herriaren nazio aitortza osoa, ondorio politiko guztiekin.
 - Euskararen ofizialtasun osoa, normalizazioa bermatzeko tresna eraginkorrekin.
- **Estatuaren esku hartze edo inboluzioaren aurkako bermeak.**
 - Estatuaren aldebakarreko inboluzio edo injerentzia saiakerak eragotziko dituzten egitura politiko eta juridikoak.
 - Gatazkak ebazteko tresna eraginkorrak.

Parte hartzea eta herri aktibazioa

ELArentzat, estatus politiko berriaren inguruko eztabaidan akordioa ez da, bere horretan, helburua. Prozesuak eta edukiak dira funtsezkoak. Gainera, EAEn eta Nafarroan egoera ezberdinetatik abiatzen gara, eta horrek esan nahi du edukiak, erritmoak eta bideak ez direla berdinak izango. Hala ere, testuinguru guztietan bada elementu komun bat: eduki horiek lortzeko indar harremana behar da. Estatuak ez ditu eskumenak eta tresnak bere kabuz emango; kenduz eta guk eraikiz lortu beharko ditugu.

Horregatik, benetan eduki horiei garrantzia eman eta eskuratu nahi baditugu, ezinbestekoa da sindikatuen, eragile sozialen, mugimenduen eta, oro har, jendarte antolatuaren parte hartzea, inplikazioa eta indarra. Konfrontazioa eta mobilizazio gaitasuna funtsezkoak dira. Eduki sozialik gabe ezin da jendarte aktibatu, ezin da gehiengo sozialik artikulatu.

Burujabetza soziala da, hain zuzen ere, gehiengo sozialak burujabetza proiektu nazional batera erakartzeko eta lotzeko bide nagusia.

Horregatik, ezin da —eta ez dugu onartuko— estatusaren inguruko eztabaida, EAEn gertatzen ari den bezala, alderdietako zuzendaritzen arteko negoziazio eta akordio hutsera mugatzea. Akordio transbertsalak edo, EAEn kasuan, derrigorrez PSE-EE barneratuko duen negoziazioa ezin dira premisa izan. Are gutxiago, erabateko gutxiengoa den alderdi bati beto eskubidea ematea.

Burujabetzaren inguruko edozein prozesuk gehiengo sozialaren protagonismoa eta eduki sozial sendoak izan behar ditu oinarri; bestela, hutsala eta ahula izango da.

3. EZINBESTEKO GIZARTE AKTIBAZIOA, POLARIZAZIO ETA INTERPELAZIO POLITIKOA: GREBA OROKORRA

Langile klaseak bizi duen zapalkuntza eta mehatxuek —pobretze prozesuek, prekaritatearen hedapenak, etxebizitzaren krisiak, krisi ekologikoak, militarizazioak eta gerra logikaren normalizazioak, ongizate estatuaren desagiteak, demokrazia defizitek eta eskuin muturraren gorakadak— erantzun kolektiboa eskatzen du. Egoera honi aurre egiteko, ordea, ezinbestekoa da indar harremana sortzea. Ez da nahikoa arrazoiak izatea edo argudio zuzenak plazaratzea; egoera aldatzeko eta gure helburu politiko eta sozialak lortzeko indarra behar da.

Indar hori ez da berez sortzen. Gure inguruko jendeari egoeraren gordin-tasuna agerian jarritzeraikitzen da, egoeraren arduradunak identifikatuz, polarizazioa sortuz, alternatiba posible dela eta lor daitekeela erakutsiz, jendea konbentzitzen, antolatuz, mobilizatuz eta konfrontatuz. Prozesu horretan, tresna eraginkor eta pribilegiatua da Greba Orokorra.

Greba Orokorraren funtzio nagusia ez da protesta sinbolikora mugatzen den egun isolatua izatea; botere harremanetan zuzenean esku hartzeko tresna da. Ekonomia eta produkzioa geldituz, gizarte osoa interpelatzen du, eta norabide politikoa baldintzatzeko gaitasuna ematen du. Greba Orokorrak, beraz, hainbat esparrutan jotzen du aldi berean: gure aldarrikapenak erdigune politikoan kokatzen ditu, instituzioei eta patronalari presioa egiten die, eta —garrantzitsuena— langile klasearen nortasun kolektiboa indartzen du.

Greba Orokorrak ahalduntzea eta politizazioa sustatzen ditu, langile klasea subjektu aktibo bihurtuz, eta horregatik da gizarte aktibaziorako, polarizazio politikorako eta aldaketa errealak eragiteko ezinbesteko tresna.

3.1. Zapalkuntza eta inposizio egoeretatik askatzeko konfrontazioa

Esan bezala, aipatutako testuinguruan gure helburuak eta aldarrikapenak erdiesteko ezinbestekoa da gizarte aktibazioa, mobilizazioa, polarizazioa eta konfrontazioa sustatzea. Kontzeptu horiek sarritan “gogor” entzunarazten dizkigute, eta botereek berehala erabiltzen dute beldurra-
ren diskurtsoa: “konfrontazioa” gatazka itsuarekin nahasten dute, “polarizazioa” zatiketarekin parekatzen dute, eta “mobilizazioa” desordena

gisa aurkezten dute. Baina egia kontrakoa da: justizia sozialerako bidea ezin da indar harremanik gabe egin, eta indar harremana eraikitzeko gizarte aktibazioa ezinbestekoa da.

Zapalkuntza egoeretatik askatzeko lehen urratsa gatazka agerian jartzea da. Pobretzea, prekaritatea edo eskubideen murrizketa ez dira zoritxarrrak; interes kontrajarriak daudelako sortzen diren gatazken ondorio dira. Kapitalak eta patronalek etekinak maximizatu nahi dituzte; guk, berriz, bizitza duina. Estatuak eta botere egiturek “egonkortasuna” eta “gober-nagarritasuna” aipatzen dituzte; langile klaseak, ordea, lan eta bizi baldintza duinak, babes soziala eta hemen erabakitzeko aukera behar ditu.

Horregatik, gure lankideei eta jendarteari argi esan behar diogu: ez dago neutraltasunik. Etxebizitza garestitzen denean, norbait aberasten ari da. Soldatak inflazioaren azpitik doazenean, aberastasuna alde batera pilatzen ari da. Zerbitzu publikoak ahultzen direnean, interes pribatuen negozioa zabaltzen da. Militarizazioa handitzen denean, diru publikoa bestelako lehentasunetara bideratzen da, “gastu soziala ezinezkoa” dela esaten diguten bitartean. Hori guztia interesen talka da.

Eta hori guztia ez da arrazoi edo diskurtso kontu soila; indar harreman kontua da. Patronalek, botere ekonomikoek eta Espainiako Estatuak ez dute guk nahi duguna borondate onez emango. Ez dira konbentzitu behar, ez dute ulertu edo onartu behar: behartuta sentitzen direnean bakarrik egingo dituzte urratsak.

Horixe ikasi dugu lan esparru propioaren eraikuntzan: patronalek ez dute negoziatzen gure arrazoiek konbentzitzen dituztelako, baizik eta grebek, mobilizazioek eta gehiengo sozial antolatuak presioa egiten dielako. Eta gauza bera gertatzen da gaur planteatzen ditugun aldarrikapenekin: 1.500 euroko LGS hemen erabakitzea, lan harremanen eta babes sozialaren esparru propioa, autogobernua eduki sozialez betetzea... horiek guztiak ez dira diskurtso hutsez lortzen. Konfrontazioa beharrezkoa da.

Eta argi izan dezagun: konfrontazioa ez da bortizkeria. Konfrontazioa da interes kontrajarriak agerian jartzea, zapalkuntzaren erantzuleak seinaltzea eta gehiengo soziala antolatzea norabide bat markatzeko. Konfrontazioa da gizarteari esatea: “hori ez da bidezkoa, eta ez dugu onartuko”. Langile eta jandarte masa handi batek hori horrela ikusten badu, bote-reak ezin izango du dena bere horretan mantendu.

3.2. Langile klasearen ahalduztze, polarizazio eta konfrontazio tresna nagusia

Greba Orokorra: kapitalismoak ulertzen duen hizkuntza

Greba Orokorrak lehen mailako balio politikoa du, gizarte kapitalisten bihotza den ekonomia eta produkzioa zuzenean kolpatzen duelako. Kapitalismoan boterea ez dago soilik parlamentuetan edo gobernuetan; boterea ekoizpenean, banaketan, finantzetan, logistikan eta zerbitzuetan ere badago. Greba Orokorrak botere horren erdigunean jotzen du.

Greba egiten duen langileak, lan egiteari utzita, egun batez bederen, menperatzen duen logikari ezetz esaten dio. Baina ez da ezetz huts bat. Ezetz horrek proposamen politiko eta sozial bat jartzen du mahai gainean: soldata duinak, eskubide kolektiboak, babes sozial sendoa eta geure bizitzen eta etorkizunaren gaineko erabakia geure esku hartzeko beharra.

Horregatik, Greba Orokorraren indarra ez da soilik manifestazio jendetsuetan neurtzen. Bere indarraren zati nagusia lan zentroak hustean, ekoizpena gelditzean eta jarduera ekonomikoa etenaraztean dago. Une horretan, kapitalaren irabaziak kolokan jartzen dira, eta botere harremanak astintzen dira. Izan ere, greba da kapitalak ulertzen duen hizkuntza.

Langileak, eragile aktiboak

Greba Orokorrak langile klasearen eta herritar xumeen legimitate politikoa eraikitzen du, langileak subjektu politiko aktibo gisa kokatuz. Greba egunean, askotan zapalduak, mespretsatuak edo gutxietsiak izan diren pertsonak ez dira biktima edo eragile pasibo gisa agertzen, baizik eta beren inguruko egoera politiko eta sozialean esku hartzen duten subjektu kontziente eta antolatu gisa.

Greba Orokorraren bidez, langileek beren zapalkuntzak politizatzen dituzte, eta kapitalismoak inposatzen dien “lan indar” hutsaren paperetik irteten dira, protagonista politiko bihurtuz. Milaka pertsona eztabaidara, erabakitsera, antolatsera eta besteak interpelatsera bultzatzen ditu, parte hartze kolektiboa praktikan jarritz. Horrek berehalako eragina ez ezik, epe luzeko ondorioak ere baditu: greba egunetik harago, antolakuntza sareak sendotu eta kontzientzia politikoa sakontzen da.

Horrez gain, Greba Orokorrak botereek etengabe sustatzen duten ideia apurtzen du: politika alderdi politikoen, instituzioen edo adituen esparru eskusiboa dela. Aitzitik, agerian uzten du politika ere badela lantokietan, kaleetan, auzoetan, eskoletan, ospitaleetan, zaintza sareetan eta zerbitzu publikoetan egiten duguna. Herritar xumeek badute zer esanik, eta Greba Orokorrak hori ikusgarri egiten du, botere harremanak zalantzan jarritz eta demokrazia sakonago eta parte hartzaileago baterako bidea irekiz.

Agenda politiko eta soziala baldintzatzea: erdigunea hartzea

Greba Orokorrak langile klasearen aldarrikapenak agenda politiko eta sozialean erdigunean jartzen ditu. Greba egunetan, eragile politikoak, ekonomikoak eta komunikabideak behartuta daude grebaz hitz egitera; eta grebaz hitz egitea da, nahi ala ez, grebaren arrazoiak eta aldarrikapenak mahai gainean jartzea.

Horixe da interpelazio politikoa: gizarteari galdera deseroso baina beharrezkoak egitea. “Nora doa langileok sortzen dugun aberastasuna?”; “Bidezkoa al da Euskal Herrian bizi den langile bat 1.184 euroekin bizitzera behartzea, enpresak inoizko irabazirik handienak pilatzen ari direnean?”; “Nork erabakitzen du hori?”; “Eta zergatik ezin dugu guk, hemen, erabaki?”.

Greba Orokorrak galdera horiek lehen lerroan kokatzen ditu, gure irakurketa politikoa eta proposamenak zabaltzeko aukera emanez, eta botere politiko eta ekonomikoak zuzenean interpelatzen ditu. Horrela, eztabaidaren markoa aldatzen du, isilarazi nahi diren gaiak agendan txertatuz eta gehiago sozialaren interesak erdigunean jarritz.

Egungo politika instituzionalaren mugak agerian uztea: eskubideak ez dira instituzioetatik soilik lortzen

Greba Orokorrak egungo politika instituzionalaren mugak agerian uzten ditu. Erakusten du eskubide sozialak ez direla lehen instantzian, ezta soilik ere, instituzioetatik lortzen. Instituzioak eremu garrantzitsuak direla, baina sarritan indar harremanen menpe daude. Greba Orokorrak, aldiz, agerian uzten du agenda politikoa instituzioetatik kanpo ere baldintzatu eta bideratzeko gaitasuna dagoela, langile klasearen interesen alde.

Horrek instituzioei gogorarazten die presioa hor dagoela, eta presio hori ezinbestekoa dela demokrazia erreal eta bizia izateko, baita aurrerapen

sozialak lortzeko ere. Presiorik gabe, instituzioek joera dute egungo bostere oreka erreproduzitzeko. Greba Orokorrak logika hori apurtzen du, herritarrak subjektu politiko aktibo bihurtuz eta demokraziari benetako edukia emanez.

Faxismoaren eta autoritarismoaren aurkako hesia: elkartasuna eta erantzun kolektiboa

Eskubide sozialen ahultzeak eskuin muturra indartzen duen neurrian, Greba Orokorrak langile klasearen interesen defentsarako antolakuntza, elkartasuna eta erantzun kolektiboa sendotzen ditu. Greba Orokorra demokrazia soziala aktibatzen duen tresna da: herritarrek kolektiboki norabide bat markatzen dutenean, autoritarismoaren “ordena” faltsuari atea ixten diote.

Eskuina eta eskuin muturra gizartea zatitu, bakartu eta beldurra elikatzeko estrategiak erabiltzen dituzte. Greba Orokorrak, ordea, kontrako norabidean jotzen du: elkartu, indartu eta antolatu egiten du, kohesio soziala eta erantzun kolektiboa eraikiz, eta horrela, alternatiba demokratiko eta sozial sendoa jarritz autoritarismoaren aurrean.

Nortasun kolektiboa eta polarizazioa: “guk” eta “haiek” agerian

Greba Orokorrak zapalkuntzaren arduradunak eta zapalduak agerian uzten ditu. “Guk” baten eta “haiek” baten existentzia bistaratzen du, interes kontrajarriak argi erakutsiz. Horrek ez du esan nahi gizartea artifizialki zatitzea denik helburua; kontrakoa da: zatiketa jada badago, eta botereak estali, naturalizatu edo ukatu nahi du.

Greba Orokorrak zapalduen subjektu kolektibo bat eraikitzen du zapaltzaileen aurrean. Aldi berean, kapitalak langile klasearen barruan etengabe sustatzen dituen banaketak gairatzeko aukera ematen du: lanpostuaren arabera, soldaten arabera, kontratu motaren arabera —finko edo behin behineko—, enpresa nagusikoak edo azpikontratetakoak, generoaren edo jatorriaren arabera, enplegua dutenak eta ez dutenak... Banaketa horiek guztiak gairatu eta interes komun baten inguruan elkartzeko tresna bihurtzen da.

Horren bidez, Greba Orokorrak banakako ezintasunak eta frustrazioak indar kolektibo bihurtzen ditu, eta borroka sakabanatuak ildo komun ba-

tean lotzen ditu. Belaunaldi, sektore eta egoera desberdinetako langileak helburu partekatuen inguruan biltzen ditu, langile klasearen nortasun kolektiboa indartuz eta borrokarako gaitasun erreal eta bateratua eraikiz.

Bizitzaren logika ekonomizista-produktibista zalantzan jartzea

Kapitalismoak bizitza bera produkzio logikaren menpe jartzen du: denbora, energia, harremanak, zaintza eta eguneroko bizitza osoa merkatuaren logikaren arabera antolatu nahi ditu. Greba Orokorrak, egun batez bederen, logika hori kolokan jartzen du, eta mezu argi bat helarazten du: bizitza ez da ekoizpenaren menpeko osagai bat eta ekonomia eta ekoizpena bizitzaren eta jendartearen zerbitzura egon beharko lukete.

Grebaren bidez, bestelako balioak jartzen dira erdigunean: bizitza bera, denboraren gaineko jabetza, menpekotasunik eza, berdintasuna eta elkartasuna. Ekoizteari uzteak erakusten du gizartea ez dela kapitalaren erritmoaren arabera antolatu behar, baizik eta pertsonen behar, desira eta duintasunaren arabera.

Horregatik, Greba Orokorra ez da lan gatazka bati lotutako tresna hutsa. Bizitza eredu baten interpelazio zuzena da, galdetzen duelako zer bizi eredu nahi dugun, nork erabakitzen duen eta zeinen mesedetan antolatzeko den gizartea. Greba Orokorrak, horrela, kapitalismoaren ekonomia eta ekoizpen ereduaren zentralitatea zalantzan jarri eta bizitza erdigunean jartzeko aukera politikoa irekitzen du.

Burujabetza prozesu historiko batekin lotzea: klase elkartasunaren memoria

Greba Orokorrak, unean uneko aldarrikapen eta helburuetatik harago, langile klaseak historian zehar egindako borroka eta lorpenei lotzen gaitu. Grebaren bidez, klase elkartasun historiko baten parte bihurtzen gara: ez gaude bakarrik, ez gara lehenak, eta ez gara kapritxoz ari.

Gure aurretik beste askok borrokatu dute lan eskubideen, bizi baldintza duinen eta justizia sozialaren alde, eta guk borroka ildo hori hartzen dugu gaurko testuingurura egokituta. Greba Orokorrak memoria kolektibo hori aktibatzen du, borrokaren zilegitasuna sendotuz eta gaurko aldarrikapenak iraganeko eta etorkizuneko borrokekin kateatuz.

Horrela, Greba Orokorrek ez du soilik egungo egoerari erantzuten; jarraikortasun historiko baten adierazpen da, langile klasearen borroka luzean beste katebegi bat, etorkizuneko lorpenen oinarri.

Lorpen historikoen bultzatzaile nagusia: borrokaren bidez lortutakoa

Langile klaseak historian zehar eskuratu dituen lorpen nagusienak ez dira borondatez edo kontzesioz etorri; mobilizazioaren, konfrontazioaren eta grebaren bidez lortu dira. Esklabutzaaren desagitea, haurren lan esplotazioaren debekua, emakumeen boto eskubidea, greba eskubidea, 8 orduko lanaldia edo 35 orduak ez dira berez sortu: borrokaren emaitza dira. Gurean ere hala izan da: akordio interprofesionala edo euskal hitzarmenen blindajea ez dira patronalaren borondate onaren fruitu izan, baizik eta indar harremanaren ondorio.

Horren adibide dira 1999an, Greba Orokorriari esker, lortu ziren sektore publikoko 35 orduko lanaldia eta pobrezia arintzeko eta ekitate soziala bultzatzeko Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta. Berrikiago, mobilizazio sozialari eta herri aktibazioari esker gelditu da Guggenheim Urdaibai proiektua.

Argi dago historian zeharreko lorpenek izen abizenak dituzte. Antolakuntza, mobilizazioa eta konfrontazioa. Horiek dira aldaketa sozialak bultzatu dituzten motor nagusiak, eta horiek izaten jarraituko dute etorkizuneko eskubide eta aurrerapenen giltza.

Momentuko lorpenez harago: garaipenerako baldintzak eraikitzea

Greba batek gutxitan lortzen ditu bere aldarrikapenak berehalakoan. Gehienetan, hurrengo borroketarako baldintzak eraikitzen ditu: antolakuntza sendotzea, iritzi publikoa baldintzatzea, konfiantza kolektiboa indartzea eta indar harremana pilatzea. Grebarik egin gabe ezin da bide hori jorratu. Grebarik gabe indarra desegin egiten da; grebarekin, berriz, indarra metatu eta egituratu egiten da.

Horregatik, Greba Orokorra ez da egun bakarreko ekintza isolatua. Prozesu baten mugarri politikoa da, aurretik egindako lanaren emaitza eta ondorengo borroken abiapuntua aldi berean. Prozesu horrek jarraipena behar du lantokietan, sektoreetan eta kalean, antolakuntza eta mobilizazioa etengabe elikatuz.

Greba Orokorrak, beraz, ez du soilik unean uneko eragina bilatzen; aldaketa sakon eta iraunkorrek posible egiteko oinarriak eraikitzen ditu.

Greba ekoizpena eta jarduera ekonomikoa benetan gelditzeko dira

Toki askotan, Greba Orokorra kalera ateratzeko, aldarrikapenak agenda politikoan kokatzeko eta manifestazio jendetsuak egiteko tresna gisa ulertzen da. Hori garrantzitsua da, zalantzarik gabe. Baina ELArentzat, horretaz gain, Greba Orokorren muina ekoizpena eta jarduera ekonomikoa benetan gelditzea da.

Patronalek eta gobernuek badakite Euskal Herrian enpresa askok jarduera eteten dutela eta lan zentroak modu esanguratsuan husten direla greba orokorretan. Horrek beste leku askotan galdua dagoen indarra ematen digu, eta errespetua sortzen du. Greba ez da keinu sinboliko bat: indar harremana mugitzen duen ekintza zuzena da.

Horregatik, Greba Orokorrean ahal dugun guztia gelditu behar dugu. Zenbat eta gehiago gelditu, orduan eta handiagoa izango da presioa, eta orduan eta aukera gehiago izango ditugu gure aldarrikapenak errealitate bihurtzeko. Greba Orokorra, ELAren ikuspegitik, boterea kolpatzeko eta aldaketak behartzeko tresna nagusietako bat da.

Greba Orokorra eskubide eta erabaki kolektiboa da

Botere ekonomiko, politiko eta mediatikoez, langile kolektiboa desaktibatzeke eta grebari indarra kentzeko, etengabe azpimarratzen dute greba eskubidea indibiduala dela: “norberak erabakitzen du”, “askatasun kontua da”. Jakina, greba eskubidea norbanakoak gauzatzen du; baina klase ikuspegitik, greba ezinbestean kolektiboa da. Grebaren espiritua, indarra eta balio politikoa kolektiboan daude.

Lan eta bizi baldintzak kolektiboki ezartzen dira. Ekoizpena kolektiboki egiten da. Eta, ondorioz, aurre egitea ere kolektiboki baino ezin da egin. Langile klaseak ez du indarrik banaka; indarra antolakuntzan eta ekintza kolektiboan dago. Horregatik, greba ezin da ulertu erabaki indibidual askoren batura soil gisa. Greba erreal eta eraginkorra izateko, lanketa, eztabaida eta erabakia kolektiboki egin behar dira, gehiengoa konbentzitu eta grebaren aldeko gehiengo antolatua eraiki.

Gainera, greba testuinguruan, modu indibidualean grebarik ez egitea erabakitzea ez da neutroa. Grebarik egiten ez duenak besteen greba eskubidea ahultzen du eta grebaren eragina murrizten du. Horixe da grebaren logika kolektiboa: greba ez da “nire kontua”, gure kontua baizik.

Beraz, grebaren lanketa, hausnarketa eta erabakia kolektiboki landu eta hartu behar dira eta gehiengoa konbentzitu greba egiteko.

4. EGIN DEZAGUN POSIBLE: AKTIBATU, GELDITU, ERALDATU

Martxoaren 17ko Greba Orokorra aukera paregabea da. Ez bakarrik aldarrikapen zehatz bat egiteko —1.500 euroko gutxieneko soldata hemen erabakitzea—, baizik eta azken urteetan lantzen ari garen arazo eta borroka guztiak erdigunean jartzeko: prekarizazioa eta pobretzea, generoaren, jatorriaren, adinaren edo egoera administratiboaren arabera diskriminazioak, etxebizitzaren krisia, zerbitzu publikoen ahultzea, aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa, autogobernuaren higadura eta burujabetzen galera. Greba Orokorrak hari komun batean lotzen ditu errealitate horiek, eta gizarteari galdera argi bat egiten dio: norentzat ari da funtzionatzen sistema hau? Nork ordaintzen du bere kostua? Eta hau guztia bidezkoa da?

Liburuxka honetan azaldu dugun bezala, gaur egungo egoera ez da kasualitatea. Politika ekonomiko eta sozial jakinen ondorio zuzena da: lan eskubideak ahuldu, babes soziala murriztu eta kapitalaren metaketa lehenetsi duten erabakien emaitza. Horregatik, Greba Orokorra ez da protesta keinu isolatua, ezta haserrea askatzeko egun bat ere; egoeraren irakurketa politiko sakon baten ondorioa da eta egoera aldatzeko helburua duen erantzun kolektiboa.

Greba honek aukera ematen digu lan eta bizi baldintza materialak burujabetzarekin lotzeko, eguneroko bizitzatik abiatuta. Soldata duinak, pensioak, lan eskubideak, zaintza, etxebizitza edo sektore publikoko baldintzak ez dira bigarren mailako gaiak; autogobernuaren eta burujabetzaren eduki soziala dira. Tresna horiek langileon bizi baldintzak hobetzeko balio ez badute, autogobernua hutsik geratzen da eta burujabetza diskurtso hutsala bihurtzen da.

“Hemen bizi, hemen lan egin, hemen erabaki” esatea ez da aldarrikapen sinbolikoa. Greba Orokorren bidez argi esaten dugu hemen sortzen den aberastasuna hemen eta modu justuan banatu behar dela, eta hori nola egiten den erabakitzea hemen bizi garenoi dagokigula. Horregatik da funtsezkoa 1.500 euroko LGS propioa: pobrezia eta prekaritatea-ri aurre egiteko neurri eraginkorra delako, soldata arrakalak murrizten dituelako, gainerako hitzarmenetan soldata guztiak gorantz bultzatzen dituelako, eta lan harremanen eta babes sozialaren euskal esparru baterako bidean urrats erreal bat delako.

Egungo testuinguruan, Greba Orokorra garrantzia berezia hartzen du autoritarismoaren eta faxismoaren aurkako tresna moduan. Pobretzeak, ziurgabetasunak eta etorkizun faltak beldurra elikatzen dutenean, eskuin muturrak errudun faltsuak seinalatzen ditu eta gizartea zatitzen du, benetako arduradunak ezkutatu eta egungo botere egiturak mantentzeko. Grebak, ordea, kontrako norabidean egiten du lan: interes kontrajarriak agerian jartzen ditu, elkartasuna indartzen du, eta langile klaseari bere indar kolektiboa erakusten dio. Milaka pertsona politizatu, aktibatu eta antolatzeke aukera ematen du, bakoitzaren egoera pertsonala testuinguru politiko zabalago batean kokatuz.

Horregatik da, halaber, Greba Orokorra aukera paregabea langile klasea eta sindikalismoa indartzeko. Greba ez da egun bakarrean gertatzen den zerbait; greba eraiki egiten da: lantokietan eztabaidatuz, batzarrak eginez, beldurrak partekatuz, erabaki kolektiboak hartuz eta elkarren arteko babesa antolatuz. Prozesu horretan, sindikatua sendotu egiten da, antolakuntza hobetzen da, eta langile klaseak bere burua berriro subjektu politiko gisa ikusten du. Indar kolektibo horrek irtenbideari eta itxaropenari zabaltzen dizkio ateak. Gaur egungo testuinguruan, indibidualizazioa, ziurgabetasuna eta etsipena nagusitzen diren honetan, hori bereziki garrantzitsua da.

M17 ez da hutsetik sortzen, eta ez da egun horretan amaitzen. Azken urteetako borroken eta antolakuntza lanaren emaitza da, eta aldi berean etorriko direnetarako abiapuntu indartua izan behar du. Badira bere aldarrikapenak berehalakoan lortzen dituzten greba eta helburuak erdiesteko denbora gehiago behar dutenak. Edozein kasutan, grebak baina beti balio du indar harremana mugitzeko, iritzi publikoa aldatzeko eta hurrengo urratsak egiteko baldintzak hobetzeko. Horregatik, egitea bera funtsezkoa da.

Amaitzeko, interpelazio zuzena egin nahi diegu ELAko ordezkari, militante eta afiliatu guztiei, baita egoerarekin kezkatuta dagoen edozein herri-tarri ere. Greba Orokorra ez dute "beste batzuek" egiten. Greba Orokorra guk egiten dugu: lantokian, sektorean, auzoan, ikastetxean, ospitalean, zaintza sarean. Bakoitzak bere tokian eta aukeren arabera, baina helburu komun batekin. Grebara joatea ez da soilik eskubide bat; testuinguru honetan, ardura kolektiboa ere bada.

Martxoaren 17an aukera dugu argi esateko ez dugula onartzen pobretzea normalizatzea, ez dugula onartzen eskubideak murriztea, eta ez dugula

onartzen hemen bizi eta lan egiten dugunok hemen erabaki ezin izatea. 1.500 euroko LGS hemen erabakitzea posible da, beharrezkoa da eta bi-dezkoa da. Eta gaur, hori lortzeko bidea Greba Orokorra da.

Egin dezagun posible. Antolatu gaitezen. Gelditu dezagun ahal dugun guztia. Eta jarrai dezagun bidea, langile klasearen eskubideei, bizi baldintzei eta etorkizunari leku egiteko.

Martxa baten lehen notak,

Joxan Artze (Mikel Laboak abestua)

Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko,
bat inon loturik deino
ez gara libre izango.

Bakoitzak urraturik berea
denon artean geurea
etengabe gabiltz zabaltzen
gizatasunari bidea.

Inork ez inor menpekorik har
nor bere buruaren jabe
herri guztiok bat eginikan
ez gabiltz gerorik gabe

Gora Greba Orokorra!

Gora langileon borroka!

